

TXOTXONGILO GATAZKATSUAK

1.- Deskribapena

Benetako gatazka bat irudikatzeko txotxongiloak erabiltzean datza.

2.- Helburuak

- Gatazka bat aztertzea gatazkaren zati izan gabe.
- Gatazka batean murgilduta dauden pertsonak nola sentitzen diren distantzia batetik ikustea.
- Gatazkei irtenbideak aurkitzea.

3.- Partaideak

Gutxienez 8 pertsona.

Adina: 8 urtetik aurrera.

4.- Materiala

Txotxongiloak eta horman jartzeko agertokia, edo haiek eraikitze materialak (estrazza-papera, koloretako margoak, artaziak, etab.).

5.- Abiapuntuko arauak

1. Talde txikia
2. Talde handia

Teknika: Txotxongiloak

6.- Garapena

Taldea hiru edo lau pertsonako azpitaldetan banatuko da. Dinamizatazaileak egoeraren testuingurua azalduko die, gatazkaren hasierako esaldiak emanez. Une horretatik aurrera, taldeek istorioak nola jarraitzen duen erabaki beharko dute, eta baita nola amaitzen den ere.

Egoera:

- "Liburua kendu didazu".
- "Zer diozu? Liburua nirea da".

Ondoren, talde bakoitzak istorioaren jarraipena antzeztuko du. Talde guztiek beren antzezpenak bukatu arte ezingo da iritzirik eman.

Azkenik, istorio guztiak berrikusiko dira.

7.- Ebaluazioa

Nola sentitzen ziren pertsonaiak egoera horretan? Zein zen arazoa? Zein zen alderdi bakoitzaren jarrera? Zer lortu nahi zuen? Gatazka konpondu al da? Nola konpondu da? Alderdi guztiak pozik geratu al dira? Zergatik? Gatazka beste modu batera konpondu al zitekeen?

8.- Iturria

Judson, S. *Aprendiendo a resolver conflictos en al infancia*. Manual de educación para la paz y la no violencia. Stephani Judson (ed.), 2003.